



Trebakuntza 2010/04: BAIT PARTIKULA

Zalantza handiak izaten ditugu askotan BAIT partikula aditz laguntzaileekin elkartzean: **bait gara ala baikara...* Inoiz, behar ez denean ere erabiltzen dugu.

Hona hemen behin baino gehiagotan ikusi izan ditugun akatsak.

OHARRA: asteriskoz eta kurtsibaz idatzitako esaldiak gaizki daude, eta gainerakoak zuzen.

OHIKO AKATSAK

1. **Langileek udako ordutegia jarri dute atean, ez **bait da** negukoaren berdina izaten.*
2. **Ez dakigu noiz izango den Osoko Bilkura, alkateak ez **bait zuen** argitu.*
3. **Hasi bilera gu gabe, ikastarotik berandu helduko **bait gara**.*
4. **Kiroldegiko obrak ahalik azkarren amaitu behar dira, igerilekuak irailerako gertu egon beharko **bait luke**.*
5. **Obretako seinaleak neuk eskatuko ditut, hirigintzako arduraduna **bait naiz**.*
6. **Badoaz udaletxera. **Izan ere**, hamarretarako han egon behar **bait dute**.*

ZUZENKETAK ETA AZALPENA

Aditz laguntzaileekin elkartzean, BAIT partikulak forma desberdinak hartzen ditu. Hona hemen adibide batzuk, aditz laguntzaile bakoitzaren hasierako bokalaren arabera nola idatzi behar den:

BAIT + NAIZ:	bainaiz
BAIT + ZARA:	baitzara
BAIT + GARA:	baikara
BAIT + DA:	baita
BAIT + LUKE:	bailuke

Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea

www.uema.org

Donibane enparantza 1, 1.a
48380 Aulesti
Bizkaia
94-627.91.95
bizkaia1@uema.org

Done Petri 14, behea
20180 Oiartzun
Gipuzkoa
943-26.03.72
gipuzkoa2@uema.org



1. Ad. **Langileek udako ordutegia jarri dute atean, ez baita negukoaren berdina izaten.**
2. Ad. **Ez dakigu noiz izango den Osoko Bilkura, alkateak ez baitzuen argitu.**
3. Ad. **Hasi bilera gu gabe, ikastarotik berandu helduko baikara.**
4. Ad. **Kiroldegiko obrak ahalik azkarren amaitu behar dira, igerilekuak irailerako gertu egon beharko bailuke.**
5. Ad. **Obretako seinaleak neuk eskatuko ditut, hirigintzako arduraduna bainaiz.**
6. Ad. **Badoaz udaletxera, hamarretarako han egon behar baitute.**
Badoaz udaletxera. Izan ere, hamarretarako han egon behar dute.

BAIT partikula esaldi nagusia (*badoaz udaletxera*) eta mendeko esaldia (*hamarretarako han egon behar baitute*) dauden kasuetan erabiltzen da, eta mendeko esaldietan joaten da. IZAN ERE erabiltzen dugun kasuetan ez dago mendeko esaldirik; beraz, ezin da BAIT erabili.

Azalpenotatik zerbait ulertu ez baduzu edo gehiago sakontzeko ariketarik nahi baduzu, jarri harremanetan UEMAko teknikariek:in:

- Telefonoz: **943260372 (Imanol)** eta **946279195 (Iratxe)**
- Posta elektronikoz: gipuzkoa2@uema.org (Imanol) eta bizkaia1@uema.org (Iratxe)

Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea

www.uema.org

Donibane enparantza 1, 1.a
48380 Aulesti
Bizkaia
94-627.91.95
bizkaia1@uema.org

Done Petri 14, behea
20180 Oiartzun
Gipuzkoa
943-26.03.72
gipuzkoa2@uema.org